


Ilustratzailea: MARKO

# 20. UHAINAK

Haizeak ufa emeki,
haizeak ufa finki.
Uhaina gora, uhaina behera(2).
Ximixta kis, kis, kis !
Ortotsa[1] bun, bun, bun !
Txalupa hartu eta,
goazen fite-fite[2] etxerat.
Atea gakotu,
kris, kras !
Pitz dezagun sua,
eta bero eskuak,
eta gero lotara.

[1] *ortziria trumoia, durunda.*
[2] *laster.*


Haizeak ufa emeki,


haizeak ufa finki.


Uhaina gora, uhaina behera ( 2 aldiz ).


Ximixta kis, kis, kis !


Ortotsa bun, bun, bun !


Txalupa hartu eta goazen fite-fite etxerat.


Atea gakotu, kris, kras !


Pitz dezagun sua,


eta bero eskuak,


eta gero lotara.

*Eskuak ahoaren inguruan eman eta ufa emeki.*
*Eskuak ber maneran atxikiz, ufa finki.*
*Bi eskuak bekoz-beko*, erhiak gurutza, eta uhainak irudika besoen mugimenduekin.*
*Aurpegiaren aitzinean, erakuslearekin " z " haundi bat egin.*
*Bi ukabilak aurpegiaren aitzinean hetsirik, zerbait jotzen bagenu bezala egin.*
** aurrez-aurre, buruz-buru.*

*Esku eta besoekin, txaluparen arraunketa mima.*
*Erakuslearen eta pototsaren artean sudurra bihur.*
*Bi eskuek elgarri bizkarra emanik, erhiak gurutza eta mugi.*
*Eskuak elkarren ondoan luzatuz, erhiak idek.*
*Aurpegiaren alde batean bi eskuak juntaturik ezar eta burua gainean pausa.*

Gainerako ustiapen pedagogikoarentzat, ikus gidaliburuko 24. orrialdea.

© IKAS



Ilustratzailea: MARKO

BY NC ND

## 20. UHAINAK

Haizeak ufa emeki,
haizeak ufa finki.
Uhaina gora, uhaina behera (bis).
Ximixta kis, kis, kis !
Ortotsa[1] bun, bun, bun !
Txalupa hartu eta,
goazen fite-fite[2] etxerat.
Atea gakotu,
kris, kras !
Pitz dezagun sua,
eta bero eskuak,
eta gero lotara.

[1] *ortziria, trumoia, durunda*
[2] *laster*